

DIRU-ITURRIAK

Aldagai estatikoen arabera aurredefinituta dauden prezio finkoak izango ditu gure enpresak. Prezio finkoetan hiru mota desberdin bereiztu daitezke, baina gure enpresan honako hau izango dugu; ezaugarrien araberako prezioa, produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberakoa izango da. Gure kasuan, zuhaitz guztiek ez dute prezio bera, mota desberdinetakoak baitira.

Enpresaren partizipazioak honela banatuko ditugu; denak edukiko ditugu diru sarrera berdinak, fundatzaile guztiak ezinbestekoak garelako enpresa aurrera eramateko. Inbertsio pribatua erabiliz lortuko dugu kapital nahikoa enpresa sortzeko. Nahiz eta behar ez izan kapital handia gure enpresa sortzeko, aurrezkiak eta familiako inbertsoreen eskuz jasango dugu enpresaren sorrerak ekarriko dituen gastuak.